



HEDABIDEAK 2016-2018ko DEIALDIA Eguneroko prentsa: kostu estandarrak

Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko 2016-2018ko deialdira bilduriko eguneroko prentsako egitasmoen aurrekontuak arazteko prezio estandarrak finkatu dira.

Batetik, sorkuntza eta funtzionamendu kostu estandarrak finkatu dira (*sorturiko orrialdeko* edo *orrialde originaleko*), bi kategoriatan banatuta: Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaltzen diren egunkariak eta gainerakoak, hots, eskualde zéin herri mailako eguneroko prentsa egitasmoak.

Eta bestetik, inprenta kostuak eta zabalkunde kostu estandarrak finkatu dira. Inprenta kostuei dagokienean, *banatutako orrialdeko* kostu marjinalak ezarri dira (ondoren, koloreen arabera biderkatzaileaz doitu beharrekoak). Eta zabalkunde kostuen esparruan, azkenik, *aleko* kostu marjinalaren prezioak finkatu dira, Euskal Autonomia Erkidego osoko egunkariak, eskualde eta udalherri mailakoak bereizita.

SORKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU KOSTUAK		
Ezaugarria	Aukera-aniztasuna	Sortutako orrialdeko kostu marjinala
Orri-kopurua (tabloide)	EAE osorako egunkariak	246 € - 295 €
	EAE osorako ez diren egunkariak	180 € - 215 €

INPRENTA ETA ZABALKUNDE KOSTUAK		
Ezaugarria	Aukera-aniztasuna	kostu marjinala
Inprenta kostuak		
Botaldia zenbakiko	5.000 ale arte	0,0075 € banatutako orrialdeko
	5.001 - 10.000 ale	0,0061 € banatutako orrialdeko*
	10.001 aletik gora	0,0042 € banatutako orrialdeko
Koloreen trataera	Azala koloretan, nagusiki zuri-beltzean	(bider) X 1,20
	Koloreen trataera: 4+4	(bider) X 1,50
Zabalkunde kostuak		
Zabalkundea	EAE osorako egunkariak	0,196 € aleko
	Eskualde mailako egunkariak	0,109 € aleko
	Udalherri mailako egunkariak	0,012 € aleko

Gasteizen, 2016ko uztailaren 21ean

Jokin Azkue Arrastoa
Euskara Sustatzeko zuzendaria



HEDABIDEAK 2016-2018ko DEIALDIA
Udalergi, eskualde eta lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio
orokorreko aldizkariak: kostu estandarrak

Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko 2016-2018ko deialdira bilduriko egitasmoen aurrekontuak arazteko prezio estandarrak finkatu dira; horien artean, udalergi, eskualde eta lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

Batetik, sorkuntza eta funtzionamendu kostu estandarrak finkatu dira (*sorturiko orrialdeko* edo orrialde originaleko).

Bestetik, inprenta kostuak eta zabalkunde kostu estandarrak finkatu dira. Inprenta kostuei dagokienez, *banatutako orrialdeko* kostu marjinalak ezarri dira (onoreen, koloreen arabera biderkatzaileaz doitu beharrekoak). Eta zabalkunde kostuen esparruan, azkenik, *aleko* kostu marjinalaren prezioak finkatu dira, etxez etxeko zabalkundea edo posta bidezkoa den kontuan izanik.

SORKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU KOSTUAK		
Ezaugarria	Aukera-aniztasuna	Sortutako orrialdeko kostu marjinala
DIN-A4 Orrialdea	Udalergi, eskualde edo lurralde mailako informazio orokorreko aldizkariak	120 € - 150 €

INPRENTA ETA ZABALKUNDE KOSTUAK		
Ezaugarria	Aukera-aniztasuna	Kostu marjinala
Inprenta kostuak		
Botaldia zenbakiko	10.000 aletik gora	0,0101 € banatutako orrialdeko
	5.001etik 10.000 aletara	0,0121 € banatutako orrialdeko
	1.001etik 5.000 aletara	0,0121 € - 0,0346 € banatutako orrialdeko
	1.000 ale arte	0,0346 € banatutako orrialdeko
Koloreen trataera	Zuri-beltzean	(bider) X 0,74
	Azala koloretan, nagusiki zuri-beltzean	(bider) X 0,82
	Koloreen trataera: 4+4	(bider) X 1,09
Zabalkunde kostuak *		
Zabalkundea	Etxez etxeko zabalkundea	0,109 € aleko
	Posta edo harpidetza bidezko zabalkundea	0,20 € aleko

Tabloide formatuan argitaratutako aldizkariari eguneroko prentsari dagokion arazketa modua aplikatuko zaie.

* Zabalkundea bi modutan edo gehiagotan egiten denean, egokitzapenak egingo dira kostuetan.

Gasteizen, 2016ko uztailaren 21ean

Jokin Azkue Arrastoa
Euskara Sustatzeko zuzendaria